



## ATZERRITARTASUN-ZUZENBIDEKO GAIAK

### SUSTRAITZEAREN FIGURA;

aldaketen azken urteak, uztailaren 26ko 629/2022

Errege Dekretua **BERRITU** arte

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES





2022ko abuztuaren 16an sartu zen indarrean **uztailearen 26ko 629/2022 Errege Dekretua**, Atzeritarrei buruzko Erregelamendua aldatzen duena. Erreformaren asmoa da lan-baimenak abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretuak, lan-erreformarako premiazko neurriei buruzkoak, ezarritako **kontratazio-esparru berrira** egokitzea, lan-eremuari lotutako **migrazio-araudia hobetzea** eta **lan-merkatuaren** eraldaketara eta **beharretara** egokitzea, azken urteetako **jurisprudenzia-berrikuntzen** ondoren aurreikusitako figura-elementu batzuk eguneratzeaz, eta Migrazioen Estatu Idazkaritzak alde aurretik emandako jarraibideak txertatzeaz gain.

Aurrekoari eutsiz, **aldaketak** aurkitzen ditugu lan-merkatuko beharren egungo argazkiari gehiago egokituta, estaldura zaila duten lanbideen-katalogoa egiteari begira **enpleguaren egoera nazionala zehazteko orduan**<sup>1</sup>. Ildo beretik, **migrazio zirkularra bezalako formulen** bidez jatorrian kontratatzeke kudeaketa kolektiboa errazten da. Formula horrek langileak itzultzeko konpromisoa betetzea saritzen du eta administrazio-karga txikiagoekin lana egiteko egonkortasun handiagoa ematen dio. Era berean, **ekintzaitzari laguntzean** eragiten du, eta autoenplegurako banako ekintzailearen irudia saihesten zuten zenbait eragozpen deuseztatzen ditu.

**Ikasteko egonaldian** dauden pertsonen egoerari dagokionez, enplegua edo ekintzaitzeta bilatzeko egoitzarantz edo praktiketarako egoitzarantz lehen ireki ziren aukerez gain<sup>2</sup>, erreformari esker, prestakuntza eta lana batera ditzakete, baldin eta haien ikasketekin bateragarria bada eta astean hogeita hamar ordu gainditzen ez badituzte. Ikasketetarako baimenak lanerako gaitzen du, izapide osagarriak egin gabe, goi-mailako hezkuntzako ikasketen edo enplegura bideratutako prestakuntzaren kasuan. Horrez gain, ikasketak amaitu ondoren, lan-merkatuan sartu daitezke aurreko mugarik gabe, hau da, ikasle-egoeran hiru urte igaro gabe.

Beste aldaketa batzuek **egoitza- eta lan-baimenak berritzeari** eragin dizkiote. Ezarritako ustezkoak malgutu dira, eta baimenen indarraldia lau urtera arte zabaldu da. Hala, edozein jardueran aritu daiteke, bai beste baten kontura, bai norbanakoaren kabuz.

Zalantzarik gabe, erreformak eragin dio **SUSTRAITZEAREN FIGURARI**, aparteko inguruabarretan oinarritutako egoitza-baimenen prozeduren barruan. Hala eta guztiz ere, aurretik interpretazio- eta jurisprudenzia-aldaketak eginak zeuden, eta testu arautzaile berrian sartu dira.

**Gizarte Sustraitzearen** prozeduran, pasa den urteko lan-erreformak urtebeteko lan-kontratuaren eskakizuna saihestu zuen, beraz, gai hau egokitu da, eta lan-araudiarekin bat datorren edozein kontratu-modalitate onesten da, baldin eta urtean orokorrean zenbatuta lanbide arteko gutxienezko soldatara iristen bada. Era berean, ardurapean adingabeak dituztenen egoerak kontuan hartu dira. Hala, lanaldi laburragoko kontratua (gutxienez astean hogeita hamar ordu) aurkeztu dezakete. Halaber, zenbait kontratu egiaztatzea malgutu da (lanbide berekoak izan gabe, Atzeritartasun Araudiaren 124.2 artikulua aurreko idazketak mugatzen zuen bezala).

<sup>1</sup> <https://www.sepe.es/HomeSepe/empresas/informacion-para-empresas/profesiones-de-dificil-cobertura/profesiones-mas-demandadas.html>

<sup>2</sup> [https://extranjeros.inclusion.gob.es/ficheros/normativa/nacional/instrucciones\\_sgie/documentos/2018/busqueda\\_de\\_empleo.pdf](https://extranjeros.inclusion.gob.es/ficheros/normativa/nacional/instrucciones_sgie/documentos/2018/busqueda_de_empleo.pdf)  
[https://extranjeros.inclusion.gob.es/ficheros/normativa/nacional/instrucciones\\_sgie/documentos/2018/practicas.pdf](https://extranjeros.inclusion.gob.es/ficheros/normativa/nacional/instrucciones_sgie/documentos/2018/practicas.pdf)



**Lan-sustraitzeari** abiapuntuko ustezkoan biraketa garrantzitsua eman zaio, helburua legez kanpoko egoeran zeuden pertsonen ezkutuan lan egiten zutela azalera baitzen. Dena den, 2021ean Auzitegi Gorenak lan-harremana frogatzeko modua zabaldu zuen, eta berriaz aitortu zuen lan-biziaren froga gisa, zehaztutako bitartekoez kanpo, ebazpen judiziala eta/edo laneko ikuskapen-akta. Auzitegi Gorenaren martxoaren 25eko 452/2021 Epaiaren<sup>3</sup> bitartez doktrina bateratu denez, prozedura oso gutxi erabiltzetik eratorritako irregulartasunaren aurrean aukera berri bihurtu zen. Egoera horretan, Migrazioen Estatuko Idazkaritzak Instrukzio bat<sup>4</sup> eman zuen, eta zenbait ustezko (hala nola garrantzitsuak ez ziren lan-harremanak, beren kontura lan egiten zuten ikasle edo pertsona) mugatu edo baztertzeko irizpideak zituen. Araudiaren erreformarekin Auzitegi Nagusiak egindako interpretazioa sartu zen, eta bi egoitza-baimen desberdin sortu ziren aurretiazko lan-harremanekin lotuta; batetik, oraingo lan-sustraitzea legez kanpoko administrazio-egoeran dauden pertsonentzat, aurretiaz, egonaldiaren edo egoitzaren legezko egoeran, bi urteko egonaldia eta lan-harremanen aldi zehatza (asteko hogeita hamar orduko lanaldia sei hilabetetan edo asteko hamabost ordukoa hamabi hilabetetan. Halaber, sei hilabeteko jarduera jarraitua norberaren kontura egindako lana bada) egiaztatzen badute. Bestetik, lan-agintariekin lankidetzaren baimen berria gehitu da lan-ikuskaritzan azken urtean legez kanpo sei hilabeteko lan-harremana ziurtatzen bada.

**Familia-sustraitzearen** egungo idazketaren bitartez, Espainiako nazionalitatea duen herritarren familiari dagokion berezko araubidea sortzen da, eta ezkontide edo izateko bikote ziurtatu, aurreko eta ondorengo senitartekoei aplikatzeko ustezkoak zabaldu dira. Halaber, erkidegoko araubidea izenekoan aurkitzen ditugu<sup>5</sup>. Sustraitze-prozedura honetan 2020an Migrazioen Zuzendaritza Nagusiak emandako instrukzioak<sup>6</sup> txertatu dira.

Azkenik, interes handia sortu du **Prestakuntzarako Sustraitzearen** prozedurak. Sustraitzeko figura berri bat da, eta helburu du lan-merkatuan sartzeko trebatzea. Prestatzeko egoitza-baimena ematen da, baina, ondoren, egoitza- eta lan-baimena prestakuntza gainditu eta lan-kontratua aurkeztearen mende geldituko da. Figura honen zenbait alderdiri erantzuteko, instrukzioak<sup>7</sup> eman dira, eta hainbat bloketan eskakizuna betetzeko baliozko prestakuntza motak adierazten dituzte: lanbide-heziketako sistemaren prestakuntza arautua, ahalmen teknikoaren edo lanbide-gaitasunaren ziurtagiriak lortzeko prestakuntza, enplegu zerbitzu publikoek sustatutako prestakuntza eta unibertsitateetako master-titulazioak, zabaldu eta eguneratzeko ikastaroak edo unibertsitateen etengabeko prestakuntzaren arloko bestelakoak.

Egun atzeritartasunaren esparruan araudiak xedatzen dituen lau sustraitze motak behar bezala bereizteko, ondoren, horien ezaugarri nagusiak nabarmentzen dira.

<sup>3</sup> <https://www.poderjudicial.es/search/AN/openCDocument/47c54a4d73e1a196e1125ff5cbb6196698390f6bb804b7ec>

<sup>4</sup> [https://extranjeros.inclusion.gob.es/ficheros/normativa/nacional/instrucciones\\_sgie/documentos/2021/Instruccion\\_arraigo\\_laboral.pdf](https://extranjeros.inclusion.gob.es/ficheros/normativa/nacional/instrucciones_sgie/documentos/2021/Instruccion_arraigo_laboral.pdf)

<sup>5</sup> <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-4184>

<sup>6</sup> [https://extranjeros.inclusion.gob.es/ficheros/normativa/nacional/instrucciones\\_sgie/documentos/2020/instruccion\\_progenitores\\_de\\_menores\\_ciudadanos\\_UE\\_y\\_nacionales.pdf](https://extranjeros.inclusion.gob.es/ficheros/normativa/nacional/instrucciones_sgie/documentos/2020/instruccion_progenitores_de_menores_ciudadanos_UE_y_nacionales.pdf)

<sup>7</sup> [https://extranjeros.inclusion.gob.es/ficheros/normativa/nacional/instrucciones\\_sgie/documentos/2022/221010\\_InstruccionesArraigoFormacionOtras.pdf](https://extranjeros.inclusion.gob.es/ficheros/normativa/nacional/instrucciones_sgie/documentos/2022/221010_InstruccionesArraigoFormacionOtras.pdf)



APARTEKO INGURUABARRAK DIRELA ETA	IRAUPENA	ZIGOR-AURREKARIAK	LAN-ARLOA	FAMILIA-LOTURAK	BAIMENA	OHARRAK
<b>GIZARTE-SUSTRAITZEA</b>	<b>3 URTEKO</b> IRAUNALDIA	ZIGOR-AURREKARIK <b>EZ</b> <b>IZATEA</b>	<b>LAN-KONTRATUA/K, NORBERAREN KONTURAKO</b> JARDUERA EDO SALBUESPENA (BITARTEKO EKONOMIKO NAHIKOAK-BGDS)	<b>SENITARTEKO EGOILIARRAK</b> (LEHENENGO GRADUA ETA ZUZENEKO LINEA) <b>EDO EJREN SUSTRAITZE-TXOSTENA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ BEHIN-BEHINEKO EGOITZA-BAIMENA</li> <li>✓ <b>LAN-BAIMENA PAREKATUTA</b> (ADINGABEAK EDO KONTRATUAREN SALBUESPENA IZAN EZIK)</li> <li>✓ <b>URTEBETEKO</b> INDARRALDIA</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ <b>ZENBAIT</b> KONTRATU</li> <li>✓ <b>LAGS</b> URTEAN ZENBATUTA</li> <li>✓ <b>30 H</b> (ADINGABEEN KASUAN GUTX. 20 H)</li> </ul>
<b>LAN-SUSTRAITZEA</b>	<b>2 URTEKO</b> IRAUNALDIA	ZIGOR-AURREKARIK <b>EZ</b> <b>IZATEA</b>	<b>AURRETIAZKO LAN-HARREMANA</b> EGIATZATZEA (LEGEZKO EGOERAN EGINDAKOA)	<b>EZ DA BEHARREZKOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ BEHIN-BEHINEKO EGOITZA-BAIMENA</li> <li>✓ <b>LAN-BAIMENA PAREKATUTA</b> (BESTE BATEN KONTURA ETA NORBERAREN KONTURA)</li> <li>✓ <b>URTEBETEKO</b> INDARRALDIA</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ <b>LEGEZ KANPOKO</b> EGOERAN AURKITZEA</li> </ul>
<b>FAMILIA-SUSTRAITZEA</b>	<b>EZ DA BEHARREZKOA</b> IRAUNALDIA	ZIGOR-AURREKARIK <b>EZ</b> <b>IZATEA</b>	<b>LAN-KONTRATUA EZ DA BEHARREZKOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ ESPAINIAKO NAZIONALITATEKO <b>SEME-ALABA ADINGABEAREKIN</b></li> <li>✓ DESGAITASUNA DUEN ESPAINIAR NAZIONALITATEKOARI <b>LAGUNTZA EMATEN DION</b> PERTSONA</li> <li>✓ ESPAINIARRAREN <b>EZKONTIDEA, IZATEZKO BIKOTE ZIURTATUA, AURREKOAK ETA ONDORENGOAK</b></li> <li>✓ JATORRIZ <b>AITA EDO AMA</b> ESPAINIARRAREKIN</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ BEHIN-BEHINEKO EGOITZA-BAIMENA</li> <li>✓ <b>LAN-BAIMENA PARTEKATUA</b> (BESTE BATEN KONTURA ETA NORBERAREN KONTURA) ETA <b>5 URTEKO</b> INDARRALDIA (AZKENEKO USTEZKOA IZAN EZIK)</li> </ul>	
<b>PRESTAKUNTZAR AKO SUSTRAITZEA</b>	<b>2 URTEKO</b> IRAUNALDIA	ZIGOR-AURREKARIK <b>EZ</b> <b>IZATEA</b>	BEHARREZKOA <b>2. FASEAN BAKARRIK</b> (Instrukzioak: PRESTAKUNTZAREKIN LOTUTAKO LAN-KONTRATUA)	<b>EZ DA BEHARREZKOA</b> FAMILIA-LOTURARIK	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ 1. FASEA <b>URTEBETEKO EGOITZA-BAIMENA</b> (BESTE URTE BATEZ LUZA DAITEKEENA)</li> <li>✓ 2. FASEA <b>2 URTEKO</b> INDARRALDIKO <b>EGOITZA-ETA LAN-BAIMENA</b> (ETA BESTE BATEN KONTURA GAITZEA)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ 1. FASEA BEHARREZKOA <b>PRESTAKUNTZA-KONPROMISOA</b> (ETA MATRIKULA 3 HILABETEKO EPEAN)</li> </ul>



## INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:

**Biltzen- Integraziorako eta kulturen arteko bizikidetzarako euskal zerbitzua**

Arlo juridikoa: atzerritartasunaren arloan arreta juridikoa (09:30-14:00 h telefono-arreta eta posta elektronikoa)

- Erabiltzailea: tel.: 900 840 890  
asesoria@euskadi.eus
- Profesionala: tel.: 94 400 18 09  
juridika@biltzen.org  
<https://biltzen.org>

